

Larrinagaren Euskadiko Ezkerrak otsailean egingo du V Kongresua

Alderdia «indarberritzeko» kongresua izango dela uste du Biltzar Ttipiak

Jon Larrinaga eta Juan Maria Bandresk zuzentzen duten Euskadiko Ezkerrak datorren otsailak 8 egingo du V Kongresua, laugarrena egin zutenetik urtea beteko denean, hain zuzen ere. Urtebeteko krisia gairatu eta alderdia indarberritzea da EEren asmoa.

ZARAUTZ

«Euskal ezkerren proiektua indarberritzeko» bilduko dira Leioan Jon Larrinaga idazkari nagusiak eta Juan Maria Bandres lehendakariak zuzentzen dituzten EEko alderdikiak. Atzo Biltzar Ttipia bildu zen Zarautzen eta alderdiko buruek adierazi zuten, otsailean egingo dute V Kongresua. Horrez gain kongresua prestatzeko arautegia zehaztu zuten atzoko bileran.

Larrinagak alderdira «normaltasuna» itzuli dela azpimarratu zuen, «arrakasta galera» igaro eta gero. Euskadiko Ezkerko idazkari nagusiaren esanetan, alderditik egotzi dituzten Auñamendikoen errua izan da EEren arrakasta galera. «Marraski politago bat egin nahi izan dute, ez dakit EA siglekin ala beste batzuekin» esan zuen Larrinagak Auñamendikoei buruz.

«Zorionez hori guztia historia baino ez da» esan zuen, eta datorren kongresuan EEk «betidanik» izan dituen ildo ideologikoak azpimarratuko dituela eman zuen jakitera. «EEK zeresana izango du ezkerre-



EEren Biltzar Ttipiak V Kongresuaren prestatetarako hasi zituen atzo Zarautzen.

an eta Euskadin esparru sozialista bat eraikitzen saiatuko gara» esan zuen.

GUTXIK EGIN DUTE ALDE

Larrinagak aurkezturiko txostenari aho batez eman zion baimena Biltzar Ttipiak. Txosten hori Larrinagak V Kongresuan aurkeztuko du eztabaidatu eta bozkatzeko. Txostenak alderdiak izan duen «eraldaketa berezia» aztertzen du. Euskadiko Ezkerra bitan zatitu da praktikan, bi zatiek oraindik EE siglak aldarrikatzen dituzten arren.

Txostenean zatiketaren gogoeta

✓ EE «normaltasuna» itzuli dela esan zuen Jon Larrinagak.

egiten da alde egin duten militante kopurua ikusirik. «Ez da traumatikoa alde horretatik ikusita» esan zuen Euskadiko Ezkerko idazkari nagusiak. Larrinagaren esanetan, Gipuzkoan 95 militante egin dute alde eta Auñamendikoekin joan dira. Bizkaian orain militante gehiago dituztela esan zuen, 50 joan badira ere

62k alta eskatu dutelako, eta Araban seik baino ez dutela alde egin ziurtatu zuen.

Zentru ezkerria aldarrikatu zuen Larrinagak, «normalkuntza politikora heltzeko» beharrezkoa bait da. «Herri honetarako zentru ezkerria erreferentzi puntua behar du izan» adierazi zuen. Datozen urte hauek «mugituak» izango dira Larrinagaren iritziz. «Badirudi politika era demokratikoan egiteko unea laster helduko dela» esan zuen. Hori gertatuz gero, EE ezkerria bultzatzeko tresna ezin hobea litzateke Larrinagaren aburuz.

EFE

Normaltasun itxuraz ospatu zuen UPNk atzoko batzarrea

A.U./IRUNEA

Ordubete eskas iraun zuen UPNren Erregio Batzarrean atzo arratsaldean Iruñean ospatu zuen ohizko batzarreak. UPNren barne krisia amaitu ez dela diotenen espektatibak ez ziren bete atzokoan, eztabaida aipagarririk gabe eta normaltasun osoz burutu bait zen Jesus Aizpunen alderdiaren bilera.

Aizpunek UPNko ehun kideen aurrean irakurri zuen txosten politikoak hiru ardatz nagusi izan zituen. Lehenik, alderdiaren baitan krisia sortu duen gaia argitu nahi izan zuen UPNko lehendakariak: «Gure alderdia Bakea eta Tolerantziaren aldeko Akordioarekin bat datorrenik zailtzan jarri dutenez zenbaitzuek, UPNk betidanik terrorismoaren aurrean izan duen jarrera ekarri dut gogora», Aizpunek batzarrea amaitu ondoren azaldu zuenez. Hau da, ETAk armak uzten ez dituen bitartean elkarriketa ez dela posible azpimarratu zuen Aizpunek.

Bestalde, Espainiako hauteskun-

de orokorrak datorren apirilean izan daitezkeela eta UPNk prestatzen joan behar duela nabarmendu zuen Aizpunek. Nafarroako egoera politikoari dagokionez, PSOEn akordioak ez lortuz gero UPNren iharduera oso zaila izango dela esan zuen UPNko buruak. Honen hitzetan, «Nafarroaren gobernagarritasuna PSOEn eskutik bakarrik etor daiteke. Esfortzu hori egin behar da beraz, eta ni behintzat ahalik eta listkar gutxienak sortzen saiatuko naiz».

Berdintu mintzatu zen Rafael Gurrea. UPNko idazkari nagusiaren esanetan, «Aizpunen txostena zen garrantzitsuena eta honek argi utzi du polemikarik ez duela nahi eta Erregio Batzarrean aho batez onartu du ekutibak joan zen astelehenean kaleratu zuen idatzia». Idatzi honetan UPNk bere apoioa adierazi zion Alliren Gobernuari. Gurerearen arabera, apoio hori ez zen «deskafeinatua» izan, «Alliren Gobernuak apoia zuten badugu, lehendakariarekin gaudela esan nahi du eta».

Halaber, «Gobernuan egoteak



Jesus Aizpune.

dakartzan gorabehera guztiak» gairatzeko prest daudela adierazi zuen Gurrea. «Egoerari eutsiko diogu, ea PSOEn erantzunkizun zentzua nagusitzen den».

UPNko krisia, gogoratuko denez, Juan Cruz Allik piztu zuen, ETaren elkarriketa eskaintza aintzat hartu beharko litzatekeela adierazi zuen. Allik ez zuen adierazpenik egin nahi izan atzo, batzarrearen ondoren esan zuenez, «ez delako deus gertatu».

Mikel Iturrino libre irten da Fresneseko gartzelatik

BAIONA

Mikel Iturrino judicial kontrolpean irten zen gartzelatik ostiral gauean. Joan den martxoaren 18an atxilotu zuen Frantziako Poliziak Iturrino, Josu Arkauz Arana, 'Josu Mondragon' atxilotzearekin batera zabaldu zen operazioaren barruan.

Mikel Iturrinori, 68 urteko ondarrutarrari, Josu Arkauz Miarrizteko bere etxean gordetzea leporatu zioten. Pistola bat aurkitu zuten etxean eta martxoaren 22an Fresneseko gartzelan sartu zuten. Polizi ekintza hartan atxilotutako sei lagunetatik bi bakarrik daude egun gartzelan, Josu Arkauz eta Julia Aldasoro, Iturrinoren emaztea. Azken hilabeteetan libre utzi dituzte Luis eta Viviane Barriola eta Jone Idigoras.

Lau gazte atxilotu zituen Poliziak Gasteizko istiluetan

GASTEIZ

Lau gazte atxilotu zituen Polizia Nazionalak Gasteizen ostiral gauean izan ziren enfrontamenduen ondorioz, Arabako Gobernu Zibilak jakitera eman zuenez. Iruñean Poliziak ke pote batez larri zauritu zuen gaztearen egoera salatzeko egin zen manifestazioaren ostean hasi ziren istiluak.

Iturri horien arabera, manifestaldia amaitu ondoren hogeitamar bat gazte Gobernu Zibilerantz abiatu ziren eta harrikatzeari ekin zioten. Polizia Nazionalak indarreko eraso egin zuten, istiluen aurkako materiala erabilita.

Gertakizunen eraginez, Gobernu Zibilak esan zuen lau polizia nazionalak zauri arinak zituztela, kolpeak batez ere.

Irurtzun-Andoain autobidea

Lurraldearen manifestazioa gaur arratsaldean Tolosan

DONOSTIA

'Leizaran Parke Naturala' eta 'Tolosa komunikabideen erdigune' lema bikoitzarekin, manifestazioa egingo du gaur arratsaldean Tolosan Lurraldea koordinakundeak. Tolosako Triangulo plazatik abiatuko da manifestazioa zazpitan.

Bertsolari talde batek Olenzeroaren doinua duen bertsoa prestatu du gaurko manifestazioan kantatzeko, Lurraldeak atzo azaldu zuenez. Amaieran koordinakundeko bozeramaleek bildutako hitzegingo diete.

Lurraldearen ustez, «negoziazio ekologikoa bultzatzeko» balioko du gaurko manifestazioak. «Giza agenteen eta erkundeen arteko negoziazioa da» adierazi

zuen atzo Tomas Lozano Aresoko artzaina eta Lurraldeko kideak. «Giza mugimenduak daukagun indarraren arabera izaten gaituzte kontutan eta indar hori gure mobilizazio gaitasunaren arabera neurtzen da» gaineratu zuen.

Nafarroa eta Gipuzkoa arteko komunikazioak Tolosa zeharkatzeak duen garrantzia gogoratu du Lurraldeak gaurko manifestaziorako deia egiterakoan. «Horrela errepide berria bi probintzien zerbizurako izango delako, eta ez bakarrik bere bi hiriburuen zerbizurako» argudiatu du.

Eskakizun hau, herri honen lurralde antolaketaren ikuspegitik, «Leizaran parke naturala izendatzeko errebindikazio sozial zabalarekin» bat datorrela uste du Lurraldeak.